

KONTSUMO ARDURATSU BATERAKO TIP-AK

ARROPAK ETA OINETAKOAK



● Zure arropa zaindu eta maite ezazu

Zure arropa urte bat edo bi gehiago mantentzen baduzu, bere CO2 isurtzea %24 batean gutxituko duzu. Ez duzu bakarrik dirua aurreztuko, baita ura eta lehengaiak ere.

● Beste norbaitekin aldatu

Zure arroparen bizitza luzatzeko modurik errazena erabileraren berri bat ematea da. Beste pertsona bati balio diezaiokete!



ZURE ESKOLAN AZOKA TXIKI BAT ANTOLATU DEZAKEZU ARROPA TRUKEA ERKAZTEKO.



PLASTIKOZKO POLTSAK JARRI BEHAR EZ DIREN ZAKARRONTZIAK DITUZU?

● Ontziratu gabeko janaria erosi eta erretiluak bezalako gehiegizko bilgarriak saihestu

Merkeagoa da, behar duzun kantitatea aukeratu dezakezu eta kalitatea hobetuz izango da.

● Itzultzeko diren ontziak aukeratu zure edari eta likidoentzat

Beira adibidez brik eta plastikozko botilen ordez. Plastikozko botila batek 500 urte behar ditu deskonposatzeko.

PLASTIKOAK



ELIKADURA




● Ez itzazu elikagaiak alferrik galdu

Munduan ekoiztutako elikagaien %30a baino gehiago zakarrontzian amaitzen du. Botatzen denarekin Lurreko biztanleria guztia elikatu daiteke eta 2050 urtean espero den populazioa.

● Bertakoak eta sasoiokoak diren produktuak erosi

Zure janaria bertakoa izaten saiatzen bazara, karbono dioxido eta gas kaltegarri kopuru handia sortzea saihestuko duzu.



ZURE ESKOLAN ORTU EKOLOGIKO BAT EGITEKO AUKERA PLANTATU DUZU?



IKASLEEN ARTEKO KOMIKI, LIBURU ETA IPUINEN TRUKA BAT ANTOLATU

● Paper kontsumoa gutxitu

Zure kontsumoa gutxitu beti, baita paperaren kasuan ere. Basoak, ura eta energia aurreztuko dituzu.

● Paper termioan inprimatutako erosketak (%90a) ez dira paperaren edukiontzira bota behar

Bisferol-A (BPA) osasunarentzat kaltegarria den substantzia dute. Hori dela eta ez dira maneiatu behar (zimurto edo diru-zorroan gorde). Gainera birziklagarriak ez diren hondakinak botatzen diren edukiontzietara bota behar dira.

PAPERA



ENERGIA AURREZTEA



● LED bonbillak eta lanparak erabili

LED argiek kontsumo energetikoa %80-90 gutxitzen dute lehengo bonbilla zaharrekin alderatuz. Erabiltzen ari ez zaren geletako argiak itzalita mantendu beti.



● Ez utzi mugikorren kargagailuak entxufatuta eta geldialdian dauden etxetresna elektrikoak itzali

Elektrizitatea kontsumitzen jarraitzen dute nahiz eta erabiltzen ari ez diren arren.



ZURE IKASTETXE BARRUAN BIZIKLETENTZAKO APARKALEKURIK BA AL DAGO?

● Garraio publikoa erabili

Garraio kolektiboetan mugitzea gure joan-etorriekin sortzen ditugun emisioak gutxitzeko modurik onena da. Horrela, batezbeste 50 pertsona eramaten dituen autobus batek (automobilen okupazio errearen aurrean, 1,2 pertsonakoa delarik), 41 automobil bezain beste pertsona eramaten ditu, horrek suposatzen duen guztiarekin.

● Mugitu itzazu hankak ahal duzun guztietan

Egunero egiten ditugun joan-etorri asko oinez 30 minututan egin ditzazkegun 3 kilometroen barne daude.

GARRAIOAK

